

BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**ERREGINA ERREGENTEA 4**

Egilea eta data: Jose Maria Mugica, 1886

Deskribapena

Aldamar, Erregina Erregentearen eta Etxague Jeneralaren kaleek, eta Salamanca pasealekuak mugatutako etxadiko etxe multzo bateratu baten barruan dago. Jose Maria Mugica obra maisuak eraiki zituen (10 etxetarako jatorrizko proiektu komuna). Xehetasun eklektikoak sartuta tradizio neoklasikoaren barruan, merkataritza etxabeen, lau oinen eta mantsardaren tratamendu bateratuagatik nabarmentzen dira. Hala ere, etxeetako batzuei begiratokiak erantsi dizkiote ondoren (kasu honetan, begiratokia Lucas Aldayren 1911ko proiektua da). Oinplanoak erakusten du maila bakoitzean 200 m² inguruko etxebizitza bakarrak okupatutako ohiko etxe burgesa, bi orientazio nagusirekin, kalera eta etxadi patiora; gainera, oin bakoitzeko bi etxebizitza aurrez aurre jartzen dituen mehelinean kokatutako patioetara irekitzen diren hainbat gela daude.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzarekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: arotzeria; 1.tik 4.era bitarteko oinetako begiratokiak.
 - B.- Elementu edo zati iraunkorrak: goi oinetako arotzariaren jatorrizko formatua eta harlandua.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Erregina Erregentea - Aldamar" multzoan sartzarekin lotutakoa. Aldamar kalearen 2, 4 eta 6 zenbakiek, eta Erregina Erregentearen kalearen 2.tik 6.era bitarteko zenbakiek osatzen dute multzo hori.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.